

HKL.ORG



Aldaxkak

Arbolen antzeko

Kale-irakurraldia, 2026/04/26, 11:00, Goiz Eguzkiak

Aldaxkak

(Arbolen antzeko)

Udaberriko kale irakurraldi ibiltari-musikatua

Kalean, parkean, garraio publikotik, basoan, memorian...
ikusitako aldaxkak eta adaxkak, enborrak, hostoak,
sustraiak, fruituak eta errizomak

Apirilak 26, 11:00

Esker onak

- Koldo Izagirre: *Zuhaitzen lirika* (antologia).
- Sagarreta Natur Taldea: *Hernaniko parke eta auzoetako zuhaitzak: 50 urtez Zuhaitz Eguna Hernanin 2025*.



1)

Gingko Biloba

(Goiz Eguzki)

1.1. GINGKO

AXPI

Birramonak gustuko ez zuen arren, birraitonak zure itzalpean egiten zuen baratza. Eta txerria bazkatu.

Aiton-amonen salako leiho zabaletik horitzen ikusi zintudan urtero luzaroan.

Gurasoen etxetik, Zikuñagako papeleraren keari begira ikasi genuen aitarekin haizeak nondik jotzen zuen, zure konpainian.

Azpiko lurreko kolunpioetan egin nituen lehen hegaldiak, Ainarek bezala, aske.

Txingoan lagunekin aritzen ginen ilundu aurreko arratsetan, txorizo bokadiloaren usaina lagun.

Irensten ari zaren eskilara okertu horietara igotzeko ehundaka ahalegin egin arren, esku baten behatzarekin konta dezaket zenbatetan lortu nuen zure magalera igotzeko adina trebezia.

Hostoak galtzen dituzunean bezala, ingurukoak desagertzen joan dira urteekin, eta zure enberrari eusten diozun bezala, haien oroimenak nigan irauten du.

Orain ez naiz hain gertu bizi. Hain urruti ere ez, badaezpada.

Bake eta esker onez zabaltzen zait barrena ikusten zaitudan aldiro,
ia familiako testigu zaharrena bazina bezala.

1.2. PINUA

XABIER AMURIZA

Belo hedakor bat bezala
mendiz handiko isurmen oro-estaltzaile bat bezala
pinua hiriko ateetaraino heldu da
eta hemen naiz. hots egin du
kaleak eta autopistak irensteak
Paisaia zaleak biraoka atera zaizkio
euskal lurren nostalgia zaharra horzkatuz
mendigoizaleek harrika madarikatu dute
inbasio berdea
baina nik oleska kantatzen dut
gure mendi ibarren janzkera infinitu hori
Egia da hainbat baso koloretsu ezabatu dituela
egia da hainbat baserri mendetsu ehortzi dituela
Baino nor da mendi antzuak emankortu dituen?
Nor da lur agonikoak arnastu dituen?
Nor da bizimodu etsiak esperantzatu dituen?
Pinuak ekarri ditu hainbat etxe hogeigarren mendera
hainbat familia altxatu itomenetik lasamenera
Aberats handi askorik sortu gabe
milaka bizikera erreskakatu dituen
beren makurdura mendetsutik
Baina paisaia zaleak biraoka atera zaizkio
haren monotonia defuntua kondentatuz

Ez al da zerua ere ederra
Izar hutsez landaturik egon arren?
Eta izar batek ez du pinu laurden bat balio
Ikusi ditut poetak pinu landarea zapaltzen
ikusi ditut ezjakinak landare zapaldua
berena ez zena
kontuz-kontuz tentetzen
Nor ote zen poetago?
Ama, ezkondu! ama, ezkondu!
Itxaron, alaba, pinuak hazi arte
eta ene arreba pinudi batek ezkondu zuen
Aita, ezkondu! aita ezkondu!
Itxaron, seme, pinuak hazi arte
eta ene anaia pinudi batek ezkondu zuen
Euskal Herriko seme-alabek
ez denek, bai askok
pinuan habiatu zuten
maitasunaren ilusioa
Pagadian sartzean
museoan sartu naizela ematen dit
pinudian ordea etxean sentitzen naiz
bizia sehaskatzen den sukaldean
Museoak ederrak dira
ederra maitagarri da
baina ederrena maitatzen dena da
eta nik sukaldea maite dut
Esperantza landatua, langile isila
alarde gabekoa, gizonaren neurrikoa
ez, beste tantaiak bezala
lehenean errotua
mendeetan harrotua
abandonaturik ere konformakor
atentziorik ematen bazaio
gorantz eskertzen dakiena

sukalderaino sartzeko eskubide duena
Eder zaleek gorroto dute
pobreek ordea egunero maite
hori bai dela benetan ederra
Garaia zen hainbeste salatariren artean
defentsore bat atera zekion
zeren gure pinua
ederra ez bada
ona bai bada
eta ona bada
ederra izan behar
Inoiz hiltzeko ordurik baletorkio
eta etorriko zaio
isil-isilik joango da
etorri zen bidetik
baina nik, bizi banaiz
maite baten galera
kantatuko dut.

1.3. AULKI HUTSA

KOLDO IZAGIRRE

Ez nion jaramonik egiten leihoan jotzen zuen paisaiari
nahikoa lan neukan irakurketa eten gabe jarraitzen
badakizu zeinen dibertigarriak diren gure trenak
ez zitzaizkidan asko ardura sanjose loreak eta mimosak
edo atzekoen solasa eta aitzinean neukan aulki hutsa

kaixo esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
jaso nuen burua liburutik eta liburua burutik joan zitzaidan
kendu nizkien begiak hitzei eta bekoz beko neukan gazteari nizkion eman
baina neskak ez zidan behatzen liburu bat aterea zuen
eta hari ere ez zitzaizkion ardura ez gure mendiak ez ni

laster gure alaba zu bezalakoia izanen da pentsatu nuen
neska polita zen eta begietan bizkorraren distira zeukan
nik begiak ikusten ez nizkion arren banekien bazekiela
begiekin barre egiten gure alabak egiten dakien bezala
laster gure alaba zu bezalakoia izanen da pentsatu nuen

itxi zuen liburua aharrausi egin zuen altxa egin zen
adio esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
Zumaia zioen geltoki batean jaitsi zen ziur nago
badagoela herri bat Zumaia izenekoia nonbait
eta perfekzio guztiak eman nizkion neska bat munduan

neska munduan ezkutatu zen eta trenak aurrera jo zuen
ez dakit zergatik gelditu nintzen aitzineko aulki hutsari beha
laster gure alaba gazte hura izanen zela pentsatuz
munduan beti egonen da maite duguna oroitaraziko digun zerbait
garamatzen trena adibidez aulki huts batekin gure aitzinean



2)

Astigarra
(Pana Parkea)

2.1. PANA PARKEAK

UXUE APAOLAZA

Erritual batean bezala, helduak zirkulu zabalean, kume bizirauteko ez-gaiien inguruan. Zaurgarritasuna oihuka algaraka, beldurrik ematen ez duen parke etxekotuan. Noiz edo noiz “ama” edo “aita” itxuraz generiko batek tenkatzen du heldu bakar bat, haur egokirantz abiatzen dena, maiz korrika txikian, oinek begiak itsututa ere egingo luketen bidean.

Zenbat bide ez ditugu begiez ikusten. Begiz antzematen ditut hemen egurra, haragi biguna, zuhaitza, lur biguna; belarrietan gogoratzen dugu uniformeoa, metala, isiltasuna hilerritik bueltan.

Memoriak ibiliko du, begien atzean, tren geltokitik Portura mamutu den bidezidorra.

Halaxe Elizatxo auzoko parkea aterpetzen zuen sahatsa. Orain Urbietako Kopia denetik behera, eskailera ertzetik jaisten zen txirrista, doi-doi ume ipurdi batentzat lekua zuena. Nire belaunaldi kideek errebote semantiko jakinak ditugu eurotik pezetara, “Herrikoa” entzun eta Jarkitik Garinera, paradorea, Young Playtik Mercadona, Mercadonara. Panazko galtzak, Panama Jack botak, Pana parkea. Oinek bide bat darabilte, komun berrien, aspaldi ez berrien ondotik, eta banaramate, beherantz.

Metala, hormigoia, keak, grisak denak. Memoriak ez daki ziur nongo kolunpioetan erretzen zidan izterra eguzkitan berotutako

gurpilak, nongo kateak egiten atximurka, zein metalezko zubi eskaileradunen gainean geratzen nintzen bigarren zubitzat, norantz jaitsi jakin gabe. Ez dut “ama!”rik gogoratzen aukeren artean. Oinek eraman naute barandilla oraindik berdera.

“Ama!” hormigoitari eta metalari begira nengoela, handik kendu hemen jarri, skate pista parketzen. Beldur pixka bat ematen zuen parke basatu xamarra. “Ama!” biratu naiz kumea larrituta niganantz, itxuraz ni ekarri nauen bidetik, begiz, bere Pana parketik nire Pana parkera. “Ama!” batez bereratzten nau. Eta urruntzen naiz niretik begiz atzera begiratu gabe.

2.2. ALTZEA (I)

ELIZABETH BISHOP
(itz.: LEIRE VARGAS NIETO)

Grace Bulmer Bowers-i

A
biatuta marea luzeen etxe diren
arrain- eta ogi- eta te-
probintzia estuetan,
non badiak egunean bitan
uzten baitu itsasoa eta bidaia luzeetan
eramaten baititu sardinzarrak,

non badia sartzen
edo badia etxetik kanpo
aurkitzeak erabakiko baitu
errekak aurrera egingo duen edo atzera
apar marroizko horma bilakatuta;

non eguzki sedimentuz gorritua
itsaso gorriari begira
gordetzen baita batzuetan,
eta beste batzuetan, zelaietako
izpiliku-lokatz aberatsetan zehar
su-errekastotan baita zabaltzen;

hartxintzarrezko errepide gorrietan behera,
azukre-astigar ilaren ondotik,
egur-taulaz egindako etxaldeak igarota
eta egur-taulaz egindako eliza txukun,
kolorgetu, oskolak bezain izurtsuak,
igarota bi urki zilarkarak,

arratsalde amaieran
sartalderantz doa autobusa,
haizetakoan distira arrosa,
arrosa metala jo eta itzultzen,
esmalte urdin zartatuzko
hegal mailatua laztantzen;

sakanetan behera doa, aldapetan gora,
eta pazientziaz itxaroten du, bidaiari
bakartiak zazpi senideri
musuak eta besarkadak
ematen dizkien bitartean
collie baten begiradapean.

Agur zumarrei,
etxaldeari, txakurrari.
Martxan jarri da autobusa. Argia
loditzen doa; lainoa
dena ari da inguratzen,
aldakor, gazi eta fin.

Kristal hotz eta biribilak
jaio eta irristatu eta pausatu dira
oilo zurien lumetan,
aza gris glasatuetan,
mila orriko arrosotan
eta apostolu itxurako lupinuetan;

ilar usaindunak beren hari
zuri melatuetatik zintzilik
kareak zuritutako hesietan;
erlastarrak isilka
sartu dira kuku-praketan,
eta heldu da arratsa.

...

2.3. ALTZEA (II)

ELIZABETH BISHOP
(itz.: LEIRE VARGAS NIETO)

Orain dena dago ondo
eta lo ere egin daiteke
gau horietan guztietan bezala.
—Bat-batean gidariak
autobusa eten du kolpean,
argiak itzali ditu.

Altzea atera da
baso zeharkagaitzetik
eta hor dago, tente; mehatxari, are,
errepide erdian.
Hurbildu egin da; autobusaren
kapot beroa usaindu du.

Garai, adargabe,
eliza bat bezain handi,
etxe bat bezain goxo
(edo etxeak bezain seguru).
Gizon-ahots batek ziurtatu digunez
“Beldurtzeko arrazoirik ez...”.

Bidaiari batzuek
harridura xuxurlatuz diote,
isilka, haurrek legez,
“Badira izaki handiak, gero”.
“Ez du inongo xarmarik”.
“Hara! Emea da!”.

Denbora hartu du
autobusa aztertzeko;
handia da, beste mundu batekoa.
Zergatik, zergatik sentitzen dugu
(sentitzen dugu denok) poz
-sentsazio gozo hau?

“Izaki harrigarria”,
esan du gidari isilkorrek,
r-en dardara azpimarratuz.
“Begira, begira ezazue”.
Gero martxa sartu du.
Une bat gehiagoz,

lepoa atzerantz luzatuz gero,
altzea ikus daiteke
ilargiak argizatutako makadam-errepidean;
gero altze-usain
ahula, eta gasolina-usain
mingotsa.



3)

Masustondoa

(Oblatos atzean)

3.1. MASUSTONDOA

IBON ZAPIAIN

Fraideen lorategiaren nostalgiaz
lizarrak, eta almezak, eta zumarrak,
eta aulki higatuetan
jada, inork ez du etorkizunik marrazten.
Tarteka, egunsenti argitsuak diz-diz,
garai ilunak argitu nahian bezala.
Gaur, jolasean ageri ez diren umeek,
etzi ilunabarrez, eskuz esku,
bizitzari denbora lapurtuko diote.

Eta haize ufaden menpeko,
nor bere erroan arbolen antzeko.

Gernikan gaurko egunez bezala,
gaur zeruak orro eta lurak min,
odol isurietan negarrez
gizon eroen menera.
Olibondorik ez eta,
masustondoa tren iheskorrei nola
albiste labainkorrei begira gu,
poltsiko zulatuetaik
hitzak eta arima desagertu balitzaizkigu bezala.

Bonba hotsen dardara hor,
itsu den mundua sorgor.

3.2. BARATZAZAIN

FELIPE JUARISTI

Odol truk eraiki du mundua, baratzeko baranoan.
Bihotz-arimen atsedenleku, hezur-giharren neurriko.
Mahats-aihenak estali duen horma handiaren kanpoan
Laino artetik ihesi luzatzen dena zaio atzerriko.

Loreak arin ximeltzen dira kolore batean errerik,
Txori inozok soinu bakarra kantatzen dute airean,
Ez du itsasoa inoiz ezagutu, izokinek ekarririk
Ez bada, ondoko errekatik gora tantaz tanta joatean.

Buruz daki zuhaitz bakoitzaren izen eta dirdirdaldi,
Aski du itzal iluna ikustea zein zer den ziurtatzeko.
Berea ez da hego zorrozturik kalte latz dagien Aldi.
Ez du ezer behar bizitzari men egin eta makurtzeko.

Batzuetan ziztada sakona bat-batean du sumatzen,
Barne-muinak iraultzen dizkio, eta argira atera.
Gosea ezik, maitemina da, oso aspaldiko oroitzapen.
Krabelinek usaina bezala laster galdu zuen hura.

Begiak hertsirik neskatoa dator biluzik gogora,
Gaztain kolore ditu begiak, marrubizkoak ezpainak;
Baratxuriak lakoxe hortzak, adatsa intxaur erara,
Sagar gorri beroak bularrak, laranjazkoak masailak.

Hatzak baratx mugitzen zaizkio, igali ederron bila,
Saski batean gordetzen ditu, albahaka-hostotan bilduak,



4)

Japoniar gereziondoa

(Atletismo pista)

4.1.
EDERTASUNA AURKITZEKO
JARRAIBIDEAK
(Loretarako gereziondo zuria 73. zenbakia)

IMANOL SORONDO

Edertasuna
begiradaren menpe izanik,
interesgarria izan daiteke beti,
Aeta lagungarria maiz,
eskura izatea,
toki baten liraintasuna errekonozitzeko jarraibideak.

Hala,
esku ahurretan kabitzen diren mikrokosmosak behatuz,
nola,
begiradarik zabalaren aukera infinituak baliatuz,
ekingo diogu,
edertasunaren bilaketari:

Txeklist 1:

- Hegaztien geometriak zeruan,
- Umeen poza parkean,
- Txorien kantua adarretan,
- Zuhaitzen dantza haizetara,
- Pentsamendu goxorik ezustean,
- Loraldiaren usain lurrinak,

Edonola ere,
guztiaren lekuko diskretu,
loretarako gereziondo zuria;

eta izenari erreparatuta
zer den galdetzea zilegi da,
izan ere,
gerezitarako ala loretarako ote den,
nork daki benetan?

Efimeroak, nolanahi,
loraldien eztrandak,
beti urrunak dirudite-eta,
iraganeko udaberrietan
elurtutako paisai hegazkorraren mozorrotan.

Txeklist 2:

- Artelan lotsatien aterpe.
- Parke isilen zarata,
- Jolasen templu magiko,
- Gurasoen topaleku zelebren,
- Azal goxoen laztan,

Hala izatekotan,
edertasun ezaugarrien jabe,
alegia,
polita dela ebatz genezake,
memorian izango luke lekurik,
eta merezi,
poesia apalik.

Hau argi utzita,
jarrai dezala paseoak,
beste txoko ederren bila,
jarraibideak ahaztu gabe,
jakina.

4.2. ETXE BERRIA

MIREN AGUR MEABE

Zerbait dabil aztarrika hodeietan:
zeruaren adur beltza da bakea.
Etxea giltzarrapoz itxirik, inor ez dator atera.

Altxa dezagun etxe berri bat algaz eta elurrez.
Landa ditzagun atarian zuhaitz luzexka argiak,
itxaropenaren taxukoak.

Pentsatu giltzarik gabeko etxe bat.
Izan dadila bakea esne-euri zuria.

4.3. ERAKUSKETA (19 bonsai)

JOSETXO AZKONA

Sustraietatik
buruko zozoraino
oro da zuhaitza.

Hartu eta utzi
egiten nau loak pinudian.
Txitxarrak tar-tarteka.

Ongi adosten da
huntza hormarekin.
Samina bihotzarekin.

Hostoz soilduta
zuhaitzetako habiak
neguan begi-bistan.

Ai, hagina banintz!...
Baina ez naiz hagina,
Pinus Insignis dut izena.

Zer zen lehenago
zuhaitza ala basoa?
Basoilarrak ere ez daki.

Neguaeren kontra
zuhaitz soilduak.
Ekintasun soila.

Hiri paisaia?!
nahi eta nahi ez
arbola eta ibaia

Bihotzerrea
dauka basoak,
euri azidoa tarteko.

Zuhaitz ez diren arbolak
bezalakoxeak dira esnetan
mamitzen ez diren hitzak.

Hosto lapurreta.
Haizeak makalari
ostu diona.

Maitez itsuturik
ziza eta basoa.
Izatezko bikotea.

Sutan dago basoa.
Kea dario karakolari,
malkoak akaziari.

Ibaiko ur lasterrean
adatsa garbitzen.
Sahatsa.

Pinuazal urratua,
zauri beteko enborra.
Izerdi purua.

Gereziondo loratuaz
zerbait erran asmo nuen.
Hari begira isilik gelditu.

Udagoienaren mamia.
Morkotsak darabilena
barrengo barrenean.

Urriko haizeteak
hartu du arboladia.
Hosto jasa.

Urkitik hosto bakar bat
zintzilik.
Eror-hil zorian.



5)

Pikondoa

(Antziola)

5.1. PIKONDOARENA

ARANTZA ETXEBERRIA

badoa lili
borla zuria tente
pikondoaino

gure arnagune borobilean
arbola zubi ta erreka
txakurren txoko belar artean
non ote da arto muskerra
adarra ta onddi han goian hotzak
muselinazko eraztunak
ortuak garbi landare motzak
ez dabil inor lanean

bide ertzean ilara isila
hiru dira bat hirutan
ale bakarra aipatzen dugu
akaso konfundituta
azkenekoak lasaiak dira
aurrenekoa minduta
hostoak ere berantiar datoz
sena korapilatuta

arbolak ditu izterrak estu
gogo torturaturik
fruituak daude agian prestu
gustua ezin harturik
bi daude airoso bi daude zabal

makalago hirugarrena
zein da haren pena zein bere ardura
besteek ez daukatena

*izaeraren
arima hirukoitza
pikondoa gu*

*egun iluna
pikondora-ta-buelta
udaberrian*

5.2. EZ DAUKAT

LEIRE BILBAO

Ez daukat federik,
ez onik ez txarrik.
Denbora arrimatu bitartean,
presak aginduta sinetsiko dut,
zizarea sagar puztuan bezala babestuko,
horzkada batekin ahoratuko zapore guztiak.

Ez daukat sinesmenik,
ez onik ez txarrik,
sagar azala bezala biluzteko,
inoren gosea jateko,
plater hutsa mingainarekin betetzeko,
besterik ezean.

Ez daukat lekziorik,
ez onik ez txarrik
inori mokadutzat emateko,
Ez asmorik
egunak ogi apurrak lez atzamarrekin batzeko,
bihotza jan dioten sagar-mutxikina lez
paradisuko zakarrontzian amaitzeko.

5.3. TAMARIZA ETA PIKONDOA

MIKEL LASA

Euriaren tristea
ari ta ari atergabeko amaian.

Katuak ganbaretan lo daude gau t'egun
denborari denbora emanez...

Paradisu galduetako oroipena da
nola palmondo handi baten pean
itzala genuela adiskide
nola tamariza ta pikondopean
ari ginen bekatu
haragizko bekatua

huriagatik triste ari
triste diren bezala tamarindoaren adarrak
itsas bazterrean
huriaren pean
triste ta ustel palmondoa
udazkenean

chalet ubelaren jardinean
Zarauzko plaiatik ez hain urruti.

Nola bion gorputzak gurutzaturik
(bagenekien ez genuela elkar maite)
bestearengan bilatzen genuen
gurean ez daukaguna:
mundu axolagabeak itsaso izugarriak plaiaren bakardadeak
ematen ez ziguna: maitasunaren arrastoa.

Arratsalde hura munduaren azken eguna zen
t'amore eman genion bizitzari.
Udaberrian kantatu nuen hasierako egunaz ez naiz oroitzen

Jainkoak gizona tankeratu zuen egunaz
bizirako arnasa isuri zionaz
ez naiz oroitzen

paradisuko azken egun honetan.

Katuak ganbaretan lo daude
tolesgabeko ametsetan
urteak eta denborak deusezten
edota denbora milaka ugaritzen.

“DANA”k ta “NADA”k zirkulua bukatzen dute.



6)

Izeia

(Maritxu parkea)

6.1. 2016KO IRAKURRALDIA GOGOAN

MARTA LUXÁN

Batzuentzat
Hernanin Maritxurik ez
ezta Eva Marian izeirik.

Beste batzuentzat
parkeak umeen jolasleku
eta izeiak gabonetako apaingarri.

Guretzat,
elkarrekin egoteko debekuaren garaitik,
Aldaxkak irakurtzeko geltokiak babesleku
eta Goiz Eguzkiko Ginko Bilobatik
honaino zabaltzen den sustraien sarea
gure hitzak hedatzeko biderik ederrena.

6.2. GOIZ GOIZEAN

ISABEL SALINAS

Goiz goizean	airea lausotua eurian
Basoan	lurra eta hostoak usainean

zuhaitz zahar bat
haizeak markatua
erori egin da

Beste usaimen bat
poema honetan

6.3. ARBOLEN ANTZEKO

NATALIA CASTRO PICÓN
(itz.: JOSU LANDA)

Arbolen antzekoagoak izan behar genuke
biluztu, nola biluzten diren arbolak
euren ahizpa haragia eta lurra eguzki hauskorrez blaitzeko
Sutatik kendu bere kolorerik bizenak
zaurgarri eta eskuzabal
haiei eskaintzeko
eta elurra ongarritzeko
Ikusiko duzu arbola ez dela sentsualagoa loratzen denean
haritzak goroldio-onddoekin duen orgiari begiratzuz gero
Amets dardartien egunean,
airearen besarkada pasioz desiratu
Biluztu
egorik eta errezelarik gabe
beti eta edozein unetan
Edo gutxienez inguruko jendeari
negua iristen zaionean.



7)

Haritza

(Urbietazpikoa)

7.1. ZUHAITZ BAT LANDATU?

DAMIÁN PEDROSA

Ezaguna egiten zaigu bizitza oso bat laburbiltzen duen esaldia, txantxetan egindako galdera moduan entzuten dugu: “liburu bat idatzi eta zuhaitz bat landatu duzu?” Liburu bat idazteko kemenarekin gelditzen gara; baina, zuhaitz bat landatu?

Eta, hala ere, gure bizitza osoa zuhaitzekin lotuta dago. Haren egurretik sortu ziren etxeak, aulkiak, mahaiak, oheak... Baita kanoak eta itsasontziak ere. Fruituak ez ezik, animalien paradisuko basoak ere ematen dizkigute.

Toki askotan, Argentinako Panpan adibidez, ombua izan zen gauchoen identitate zeinua. Eta herri askotan bilerak, non erabaki garrantzitsuak hartzen diren, zuhaitz jakin batzuen azpian egiten dira.

Euskadin haritz bat da, Gernikakoa, euskal herriak mendeetan zehar iraun izanaren sinboloa. Eta bere kimuak erbesteko euskaldunek herrialde askotan eraikitako ehunka Euskal Etxeetan landatu dituzte.

Hernanin ere, haritzaren presentzia familiarra gure inguruko zuhaitzen parte da, eta gure etxearen luzapen gisa sentitzen dugu.

Zorionez gure arbasoak arduratu ziren haiek landatzeaz.

7.2. NEREAK EZ DIREN HAUETATIK

AMAIA LASA

Nereak ez diren
lurralde hauetatik
ihes egin nahi nuke.

Nereak ez diren ur hauek
alde batera
utzi egin behar ditut

Haitz sendoaren biribiltasunean
nire bizitzaren hitza
lortu nahi nuke

Biribiltasunean
sendotasunean
haitzaren gainean
a
e
i
o
u
berri bat esan nahi nuke.

7.3. BIZI NAI

SALBATORE MITXELENA

...

Adio
Euskalerrriak dario.

Igesi
zenbat gauz eder doazi,
Ezaren
illobi beltzera zuzen,
egundo
geiago ez biurtzeko,
sekula
il bear ez lutekela...

Antziña!
—gure inñular sorgiña,
iraun-arazi eziña...—
bazuaz
zure printzak itzalduaz...

Zergatik
ez edan zure argitik,
bizi gaitezen lengotik?
Zergatik
ez ibilli zure eskutik
bein-beti,
eten ez dedin leiñargi?...

Adio
Euskalerrriak dario,
Zugana
luzatuz bere yorana.
Bai, arren,
utzi Adio esaten.
Adio!
Adio bai sekulako!

Mendien apaingarri
ok ziran zugaitzak:
lizar, pago ta intxaur,
gaztain ta aritzak.
Sartu ziran beingoan
piñu beltz arrotzak.
Arrezkero mendiak
erderaz zebiltzak.

Intxaurraren zura zan
oiak egiteko:
lizarrarena, berriz,
katedraletako.
Piñuena, ordea,
esan zertarako?
—Baitipat, ildakoen
zerraldotarako...
Aritz, lizar, pagoak:
agur sekulako!



8)
Ezkie
(Tilos)

8.1. TILOSETAKOA

ANDONI TOLOSA

Baso honetakoa naiz
ezki horretan jaio nintzen
beste honetan maitatu
hango haren azpian erori
arbola horrek hiru hosto
isuri zituen nire urratuengatik
poliki-poliki

Oihan honetakoa naiz
oihan kantaria
arbolak entzungo dituzu
dantzatzen hasi berritan
atzo hemen dantzatu nuen
ezki bihurtuko naiz bihar

Aldaxka hauetan ez dut
urtxintzarik ikusi sekula
ezta belarrik ere
goizeko argi gozotan

petrolio epela
eta beherago sustriak
eta haietan katramilatuta
hainbat lehenengo aldi

soilik baso honetan
ostotsa honen pean

enbor hauen babesean
gertatu ahal izan ziren
lege-urratze intimoen
aztarna ugari

horregatik
besteak beste
oihan honen erroetan
biziko naiz
beti

8.2. SAHATSA EBAKI ZIGUTENEAN

J.A. ARTZE

Sahatsa ebaki zigutenean
paret zuri hartan
zuri zuria
zurrusta bat geratu zen
ugaria
gorri gorria

zulo koldarretik ixuria.

maitasun irudia
batasun kapulua
belardian
sahats amildua.

zerbait hautsi digute bihotzean
gora
zerbait loratu du gure herrian

8.3. PAGOA GELDI DAGO

JOXE AZURMENDI

Pagoa geldi dago
bidearen ertzean,
ezin du konprenitu
nire presa bidean.
Bide gora noala
—izerdi bizkarrean—
zergatik hain urduri
zerbaiten ehizean?

Kantsazio pozoia
baidarama zainean,
izanaren miztoak
sartuta egonean,
bizitza neke ahulen
pentsaketa luzean,
ezin du konprenitu
nire presa bidean.

Bihotza igartu zaio
gogoeta luzean,
gogo zaio igartu
pentsamentu lanean.
Nire anaia delarik
ezaren ilunean,
ezin du konprenitu
nire presa bidean.

Udazken bustiaren
arratsalde morean,
fedea erantzi dio
Lanbrok, oharkabean,
sentimen busti tristez
alkar besarkatzean.
Ezin du konprenitu
nire presa bidean.



1) Gingko Biloba

1. Ginkgoari buruz, zein da egia?
 - a) Europa mendebaldekoa da jatorriz
 - b) 200 urte baino gutxiago bizi da
 - c) “fosil biziduna” dela esaten da
 - d) Itzala oso ondo jasaten du

2. Ginkgoaren ezaugarrien artean, zein da zuzena?
 - a) Sustraiak azalekoak dira
 - b) Zuhaitz monoikoa da
 - c) Haize eta elurteen aurrean erresistentea da
 - d) Itzalean hazten da ondo

3. Pinuen inguruan (Intsinis pinua), zein da egia?
 - a) Hazkunde motelekoa da
 - b) Sustrai sakonak ditu
 - c) Haize boladak ondo jasaten ditu
 - d) Sustrai sistema azalekoa du

4. Intsinis pinuari buruz, zein da zuzena?
 - a) 1.000 urte bizi daiteke
 - b) 30-40 metrora irits daiteke
 - c) Hosto zabalak ditu
 - d) Ez da papergintzan erabiltzen

5. Mimosari buruz, zein da egia?
 - a) Hosto erorkorrekoa da
 - b) Europa iparraldekoa da
 - c) Adaburu irregularra du
 - d) Ez da apaingarri gisa erabiltzen

2) Astigarra

6. Mimosa (Acacia dealbata) zein jatorritakoa da?
 - a) Asia
 - b) Europa
 - c) Australia hego-ekialdea
 - d) Afrika

7. Sahatsari (zume negartia) buruz, zein da egia?
 - a) Hosto iraunkorrek ditu
 - b) Leku lehorretan hazten da nagusiki
 - c) Adarrak zintzilikariak ditu
 - d) 1000 urte bizi daiteke

8. Zume negartiaren (sahatsa) ezaugarri nagusietako bat da:
 - a) Sustrai azalekoak eta ahulak
 - b) Enbor zuzena eta azala leuna beti
 - c) Leku hezeetan hazteko joera
 - d) Konifera izatea

9. Astigarrari buruz (oro har), zein da egia?
 - a) Beti hosto iraunkorrekoa da
 - b) Hostoak askotan lobulatuak edo konposatuak dira
 - c) Fruituak ez ditu hazi hegodunak
 - d) Ez da inoiz apaingarri gisa erabiltzen

10. Astigar zorrotzaren (Acer platanoides) fruituaren ezaugarria da:
 - a) Baia mamitsua da
 - b) Ezkurra da
 - c) Samara bikoitza da, bi hazi hegodunekin
 - d) Pinaburua da

3) Masustondoa

11. Zumarra (liburuko Siberiako zumarra kasu), zein erabileragatik da ezaguna?

- a) Medikuntza tradizionalen soilik
- b) Zeta-harrak elikatzeko
- c) Egurraren erabilera zurgintzan eta estalduretan
- d) Fruitu jangarriengatik

12. Zumarraren ezaugarri orokorretako bat da:

- a) Hosto pinak ditu
- b) Hosto sinple eta zerradunak izan ohi ditu
- c) Beti konifera da
- d) Ez du adarrik ia

13. Masustondo zuriaren fruituei buruz, zein da zuzena?

- a) Hasieratik more ilunak dira
- b) Zuriak dira hasieran, eta heldutakoan more bihurtzen dira
- c) Gorritz hasten dira, eta gero horitu
- d) Fruiturik ez du ematen

14. Masustondo zuriaren bizi-iraupenari buruz, zein da egia?

- a) 30-40 urte baino ez da bizi
- b) 60 urte arte bizi da gehienez
- c) 120-150 urte bizi daiteke
- d) 500 urte bizitzera hel daiteke

15. Sagarrondoaren jatorriari buruz, liburuak zer dio?

- a) Japonian sortu zen
- b) Orain dela 15.000 urte inguru sortu zela uste da, Kaukaso aldean
- c) Hego Amerikakoa da
- d) Europa mendebaldekoa bakarrik da

4) Japoniar gereziandoa

16. Zein zuhaitzek du hosto forma aldakorra eta obalatuak?

- a) Gaztainondoak
- b) Sagarrondoak
- c) Masustondo zuriak
- d) Hirurek

17. Zein esaldi da zehatzena gaztainondoari buruz?

- a) Hosto iraunkorreko konifera da
- b) 20-35 m-ko garaiera har dezake, eta 1.000 urte bizitzera iritsi
- c) 8 m baino ez du hartzen gehienez
- d) Bere fruituak drupa mamitsuak dira

18. Sagarrondoaren loreei buruz, zein da zuzena?

- a) Beti hostoen ondoren ateratzen dira
- b) Hori biziak dira beti
- c) Zuriak edo arrosak izan daitezke, eta hostoak baino lehen sortzen dira
- d) Ez dira multzotan agertzen



19. Lizarraren (*Fraxinus excelsior*) ezaugarriei buruz, zein da zuzena?

- a) Hosto iraunkorrek ditu
- b) 10 metro baino gehiago ez du hartzen
- c) 40 metrora irits daiteke eta 150 urte bizi
- d) Fruitu mamitsuak ematen ditu

20. Euskal kulturaren lizarraren erabilera sinbolikoari buruz, zein da zuzena?

- a) Hildakoen oroimenerako soilik erabiltzen da
- b) Baserriaren aurrean jartzen da babesle gisa
- c) Ez du erabilera sinbolikorik
- d) Itsas tradizioetan bakarrik agertzen da

5) Pikondoa

21. Gereziondo arruntari buruz, zein da zuzena?

- a) Gehienez 10 urte bizi da
- b) 30 metroko altuera har dezake
- c) Hosto iraunkorrek ditu
- d) Ez da balioetsia zuragatik

22. Gereziondo arruntaren ezaugarrietako bat da:

- a) Azala beltza eta zakarra du
- b) Loreak urdinak dira
- c) Enbor zuzena eta azal leun gris argia du
- d) Fruituak ez dira jangarriak

23. Haginaren erabilera historikoari buruz, zein da zuzena?

- a) Papergintzan soilik erabili da
- b) Arkuak eta geziak egiteko erabili izan da
- c) Ez da inoiz erabili tresnetarako
- d) Sukaldaritzan erabiltzen da nagusiki

24. Zein zuhaitzek du lotura berezia heriotzarekin edo hilen munduarekin euskal tradizioan?

- a) Lizarra
- b) Gereziondoa
- c) Hagina
- d) Hirurek

25. Gereziondo zuriari (Yoshino) buruz, zein da zuzena?

- a) Europa mendebaldekoa da jatorriz
- b) 1900. urtean berrizendatu zuten “Somei-Yoshino”
- c) Fruitu nagusia ezkurra da
- d) Hosto iraunkorrek ditu

6) Izeia

26. Gereziondo zuriaren historiari buruz, zein da egia?

- a) Afrikan sortu zen
- b) Ez da inoiz European landatu
- c) 1912an Japoniatik Washingtonera oparitu ziren aleak
- d) Ez du lotura kulturalik

27. Gereziondo zuriaren ezaugarrietako bat da:
- Hosto iraunkorreko konifera dela
 - Ez du lorerik
 - Loraldi ikusgarria izaten du udaberri hasieran
 - 1.000 urte bizi da
28. Zein konbinazio da zuzena?
- Sagarrondo, hosto iraunkorra; gereziondo zuria, konifera; pikuondoa, hostogalkorra
 - Sagarrondo eta gereziondo zuria, hostogalkorrak; pikuondoa ere bai
 - Hirurak koniferoak dira
 - Sagarrondo bakarrik da hostogalkorra
29. Lizeagan (Sandiusterra azpian, AEKren parean) dagoen sagarrondo...
- Mintegi batean sortua da
 - Basa sortua da, norbaitek bota zuen Golden Delicious sagar baten hazitik
 - Ez da bere jatorria ezagutzen
 - Asiako tenpluetan landatua izan da
30. Haritz kandudunari buruz, zein da zuzena?
- Hosto iraunkorreko zuhaixka txikia da
 - Gehienez 50 urte bizi da
 - 800 urte arte bizi daiteke
 - Fruituak samarak dira

7) Haritza

31. Haritz kandudunaren fruituaren ezaugarria da:
- Baia mamitsua da
 - Ezkurrak dira, txorten luze batean hazten direnak
 - Pinaburu modukoak dira
 - Hazi hegodunak dira
32. Haritzaren erabilerari buruz, zein da zuzena?
- Egurra ahula da eta gutxi erabiltzen da
 - Soil-soilik apaingarri gisa erabiltzen da
 - Zurgintzan, upelgintzan eta ontzigintzan erabiltzen da
 - Ez du erabilera praktikorik
33. Ezkiari buruz, zein da egia?
- Hosto konposatuak ditu
 - Hosto borobilak eta bihotz itxurakoak ditu
 - Konifera da
 - Ez du usainik
34. Ezkiaren bizi-iraupenari buruz, zein da zuzena?
- Gehienez 50 urte bizi da
 - 100 urte inguru bakarrik
 - 300 urte arte bizi daiteke, nahiz eta ale zaharragoak egon
 - 1.000 urte ezin ditu inoiz gaintu



35. Ezkiaren erabileren artean, zein da zuzena?

- a) Pinaburuak jateko erabiltzen dira
- b) Hosto eta loreekin infusio lasaigarriak egiten dira
- c) Egurra soilik erretzeko erabiltzen da
- d) Ez dute gizakiek erabiltzen

8) Ezkia

36. Pagoari buruz (oro har), zein da zuzena?

- a) Hosto iraunkorreko konifera da
- b) Hosto erorkorreko zuhaitza da
- c) Ez du erabilerara apaingarririk
- d) Gehienez 20 urte bizi da

37. Pago hirukolorearen ezaugarri bereizgarria da:

- a) Fruitua bakarrik da berezia
- b) Hostoen kolore aniztasuna
- c) Sustriak azalekoak izatea
- d) Hazkunde oso azkarra

38. Pago gorria (*Fagus sylvatica* “atropurpurea”) bereizten duena da:

- a) Hosto horiak izatea urte osoan
- b) Hostoen kolore granate edo gorrixka
- c) Konifera izatea
- d) Fruitu bereziak izatea soilik

39. Sahatsari (zume negartia) buruz, zein baieztapen da zuzena bere erabilerari dagokionez?

- a) Ez du erabilerara medikorik
- b) Bere azalean azido azetilsalizilikoa dago eta medikuntzan erabiltzen da
- c) Bakarrik egurretarako erabiltzen da
- d) Pinaburuak ekoizteko erabiltzen da

40. Ezkiaren (*Tilia*) ezaugarriei dagokionez, zein baieztapen da zuzena?

- a) Klima lehor eta beroak nahiago ditu
- b) Hostoak txikiak eta orratz formakoak dira
- c) Loreek usain gozo nabarmena dute
- d) Gehienez 50 urte bizi da



Testu hauek
jendurrean irakurri ziren
2026ko apirilaren 26an
Hernaniko kaleetan.

